

## BATZORDE IRAUNKORRAK 2010EKO APIRILAREN 29AN AHOBATEZ ONARTURIKO AKORDIOA

Euskadiko Eskola Kontseiluak ***Bizikidetza demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea (2010-2011)*** planaren zirriborroari egindako ekarpenen txostena

### Plana aurkezten deneko testuingurua

---

Euskadiko Eskola Kontseiluak, hezkuntza gaietan Gobernuaren kontsulta erakundeak, martxoaren bukaera aldean *Bizikidetza demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea (2010-2011)* izeneko Gobernuaren planaren zirriborroa jaso zuen Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzatik, *Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako euskal planaren (2008-2011) birformulazioa* izenburupean. Kontseiluari ekarpenak egiteko hamabost eguneko epea zuela adierazi zitzaion. Ondoren, epea luzatu egin da.

Orain aurkezten den planaren zirriborroak tentsio handiko debate bizia sortu du komunikabideetan eztabaida politikora irten zenetik, txosten hau idatzi aurreko asteetan. Debatean zehar desadostasun nabaria ikusi izan da iritzi politiko ezberdinen artean. Plan berriaren birformulazioaren zutabeetako bat 2008ko *Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea* da, eta haren inguruan, aitzitik, adostasun parlamentario handia lortu zen.

***Kontseiluak, plana oro har izaera politikokoa izanik, eta herrialde honetarako eta bere hezkuntza-komunitatearentzat garrantzitsua denez, beharrezkotzat jotzen du plana hezkuntza mundura eramaterakoan politikarien arteko adostasun maila handia izatea, horrek finkatutako helburuak betetzea erraztuko bailuke.***

Oso argigarria izango zatekeen hezkuntza komunitatea osatzen duten erakundeek dokumentuaren sorreran eta ondorengo eztabaidan parte hartzea, ikastetxeen funtzionamendua zehatz-mehatz ezagutzen dutelako. Haien ekarpenak oso lagungarriak izan zitezkeen hainbat alderdi argitzeko, hala nola horrelako plan bat praktikan nola jar daitekeen, nolako mugak eta aukerak dituen, eta jada abian dauden hezkuntza proiektuetan nola uztar daitekeen. Hala ere, planaren zirriborroaren 3.6 atalak honela dio: "Gizartearen parte-hartzea: gobernuak eragile sozialen parte-hartzea eta laguntza izan behar du, eta gizarte zibileko indarrak aktibatzen ahaleginduko da, Planaren helburuak betetze aldera".

***Kontseiluak orain arteko parte-hartzea eta atxikimendu maila ez direla nahikoak uste du, eta dei egiten du parte-hartzea bilatzen jarrai dadin, bereziki***

***planaren neurriak zehazteko, horrek zalantzarik gabe helburuak betetzea erraztuko baitu.***

Alderdi horiek guztiek, —txostena kaleratzeko denbora premiak, komunikabideen zalapartak, desadostasun politikoak eta hezkuntza munduan falta den eztabaidak— asko erraztuko zuketzen Kontseiluak bere Batzorde Iraunkorren akordiora heltzea.

Beste alde batetik, planaren zirriborroan aurreko planari egindako ebaluazioaren emaitzen balorazioa falta da, eta hori oso lagungarria litzateke dokumentua ulertzeko.

Jarraian, planaren alderdirik garrantzitsuenak hezkuntzaren ikuspuntutik aztertzen dira, honako idazpuru hauetan banaturik:

- Planaren izaera, izenburua eta sarrera.
- Biktimei lehentasunezko tratamendua ematea
- Curriculum Dekretua eta ikastetxeen autonomia
- Ikastetxeek bizikidetzaren arloan egindako lana
- Bestelako gizarte-eragileen partehartzea
- Beste zenbait gogoeta

### **Planaren izaera, izenburua eta sarrera.**

---

Azpititulan aipatzen den bezala, *Bizikidetzaren demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea (2010-2011)* izeneko plan berriak *Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako euskal plana (2008-2011)* bere bigarren urtean birformulatzen du, baina egitura ezberdina duenez, ez dago oso argi aurreko planaren zein atal ordezkatzeko duen eta zein atal mantentzen den; era berean, Eusko Jaurlaritzako sailei planteatzen dizkien ekintzen garapen programatikoa egiteko dago, eta garapen hori ezinbestekoa da egituraren aldetik aurreko dokumentuaren baliokidea izateko eta oro har plan berri bezala hartu ahal izateko.

***Horrenbestez, Kontseiluak, egindako birformulazioaren norainokoa sakonkiago aztertu ahal izateko, beharrezkotzat jotzen du plan berriaren bertsio osoa eskuratzea.***

Izenburuari dagokionez, balio semantiko negatiboko kontzeptuak (legitimazioa kentzea, indarkeria) erabiltzearen egokitasuna kolokan jarri da. Plan berriaren xedea gizarteari jakinarazteko lagungarriak izan badaitezke ere, hezkuntza mundura

hedatzea oztopatu egiten dute, ikasleek garatu behar dituzten konpetentziak, helburuak edo balioak termino positiboetan adierazi ohi direlako.

“Indarkeriari legitimazioa kentzea” terminoaren esanahiak berak pentsarazi dezake aurretik legitimazio bat izan dela, eta hori, Kontseiluaren iritziz, ezin zaio hezkuntza sistemari leporatu, hezkuntza sistemak, egiazta daitekeen bezala, bere helburuekin bat datozen jarrera moral positiboak sustatzen baititu.

Bestalde, sarrerak eta arrazoen azalpenak eduki politiko handia dute, eta Kontseilua ez da sartuko alderdi horien analisian. Hala ere, beharrezkotzat jotzen du alderdi politikoek eta Gobernuak izaera integratzaile handiagoko testu baten inguruko adostasuna lortzearen alde lan egitea.

### **Biktimei lehentasunezko tratamendua ematea**

---

Lehenengo eta behin, Kontseiluak indarkeriaren biktimekiko bere elkartasuna adierazi nahi du, oinaze eta bidegabekeria berbera partekatzen dutelako eta gure errespetu, estimu eta elkartasun osoa merezi dutelako. Izan ere, Kontseiluak, aurreko planari buruz (2007) egindako txostenean, “biktimak esplizituki aintzat hartu eta haien ikuspuntua erantsi” beharra aipatu zuen.

Bai testuan baita bere adierazpen publikoan ere, biktimaren kontzeptua azpimarratzen da, gure herrialdeko indarkeria politikoari aplikaturik. Horretarako *Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea* hartu da oinarritzat “bakearen eta elkarbizitzaren aldeko hezkuntza-proiektuetan biktimen lekukotzaren presentzia” sustatzen duena. Adierazpen bera jasotzen du Arartekoaren 2009ko *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta* izeneko txostenak.

Kontseiluaren iritziz, zilegia eta bidezkoa da indarkeria terroristaren biktimak gizartearen arreta osoa jaso dezaten planteatzea, eta, era berean, Gobernuaren zenbait sail biltzen dituen erakunde-plan bateko ekintzen erdigunean izan daitezen.

Hala ere, plana hezkuntza-jarduerara aplikatzerakoan, kontuan izan behar da ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ikusmolde berrien funtsa hurrek eta nerabeek oinarritzko hezkuntza-konpetentziak garatzea dela eta, beraz, hezkuntza-jardueraren erdigunea ikasleak direla.

Jarduera, hezkuntzan, garatu nahi den konpetentziaren mendean dago.

***Kontseiluaren iritziz, biktimen lekukotza balio handiko baliabide pedagogikoa da eta bizikidetzarako hezkuntzaren prozesuan laguntzen du, baldin eta bere egokitasuna irizpide pedagogikoen eta aniztasunezkoen arabera erabakitzen***

***bada. Jarduera, metodologia, denbora eta baliabide egokienak ikastetxeek zehaztu behar dituzte, beren autonomia erabiliz.***

## **Curriculum Dekretua eta ikastetxeen autonomia**

---

Irakaslana egiterakoan, ikastetxeek oso arau argiak dituzte, alde batetik legeak eta bestetik praktikak finkatutakoak. Orain proposatzen den planaren zirriborroak bi arau ditu erreferentzia puntutzat: alde batetik, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaren Dekretua eta bestetik ikastetxeen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arau orokorrak, autonomia pedagogikoa ematen dietenak.

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaren Dekretua oraintsu argitaratu da, 2010eko apirilaren 20an, eta Gobernuak 2007ko dekretuari erantsi dizkion aldaketak biltzen ditu. Aldaketa horiek plan honetan zehazten den lehenengo neurria osatzen dute *Hezkuntza Sailaren Programa Sektorialaren* barruan, eta, beraz, erreferentzia puntu nagusia dira Administrazioak curriculumaren eremuan finkatzen dituen arauak ezagutzeko —ikastetxeen autonomia mugatzen duten arauak—.

Euskadiko Eskola Kontseiluak dekretu berriak Herritartasunerako Hezkuntzaren arloan egindako aldaketak aztertu zituenean, balorazio orokor positiboa egin zuen.

Genero-indarkeriaren biktimez gain, biktimak Herritartasunerako Hezkuntza arloan aipatzen dira, DBHko 2. mailan (12 eta 13 urteko ikasleak). 70., 72. eta 73. artikuluek aipatzen dituzte, behean azaltzen den bezala.

70. artikulua arloaren sarreran mota guztietako biktimen lekukotza ezagutzeko interesaren aipamena egiten du:

“Giza eskubideak lantzeko orduan zorrotz erabili behar dira kontzeptuak, eta, gainera, enpatia bilatu behar da giza eskubideak zapaldu zaizkien pertsonekin. Horretarako, ezagutu beharrekoak dira haien lekukotzak...”

72. artikulua helburu hau aipatzen du:

“Egiturazko indarkeria-egoerek (gatazka armatuak, pobrezia, muturreko desberdintasuna...), indarkeria terrorista, genero-indarkeria, parekoen arteko indarkeria eragindako giza eskubideen zapalketak ezagutzea, eta bakea, askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna lortzeko asmoa duten ekintzak balioestea, mundu zuzen eta solidarioagoa lortzeko bitartekoa baita”.

73. artikulua edukiak eta ebaluazio-irizpideak biltzen ditu. 4. *eduki-multzoa*. *Gizarte demokratikoak* multzoaren edukien barruan honako hau esaten da:

“Gure gizartean biktimei haien izaera aitortzea, eta egoerei aurre egiteko eta haiek gainditzeko eredutzat balioestea”.

Azkenik, ebaluazio-irizpide hauek finkatzen dira:

“8. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren oinarritzko printzipioak eta balioak ezagutzea, eta baita bere bilakaera ere; eskubide-urraketaren egoerak bereiztea, eskubideak defendatzeko ekintzak proposatzea eta urraketen biktima izan direnekiko enpatia agertzea”.

“8.5. Ea aintzat hartzen dituen gerra-gatazketako biktimak, terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak, eskola edo laneko jazarpenaren biktimak edo beste mota bateko indarkeria-ekintzen biktimak, eta ea haiekiko enpatia eta hurbiltasuna erakusten duen”.

***Laburbilduz, ikastetxeek biktimaren kontzeptuaren inguruan bete beharreko araubidea eta eman beharreko tratamendu pedagogikoa Dekretuaren 70., 72. eta 73. artikuluetako arau orokorretan xedatzen dela uste du Kontseiluak.***

***Gainerantzean, Herritartasunerako Hezkuntza arloan beste arlo guztietan bezala, ikastetxeei dagokie, beren autonomia erabiliz, curriculumaren dekretuan finkatutako irizpideak zehatzeko erabakia.***

## **Ikastetxeek bizikidetzaren arloan egindako lana**

---

Kontseiluaren iritziz, Euskadiko ikastetxeen ezaugarri orokorren artean bizikidetzak emaitza konparatibo onak eta hobekuntzarako joera erakutsi ditu, zenbait adierazle kontuan hartzen badira:

- Ikastetxeetan ardura handia ikusten da bizikidetzak hobetzeko proiektuak gauzatzeko, ikastetxe mota eta etapa edozein delarik ere.
- PISA 2003 ikerlanean (15 urteko ikasleak) Euskadi eskola-giroan ELGEko batez bestekoaren gaineratik zegoen, irakasleen pertzepzioaren arabera eta bereziki ikasleen pertzepzioaren arabera.
- Ikastetxe publikoetan zuzendaritza taldeek eskola-giroa eta eskola-komunitatearen elementu ezberdinen arteko harremanak eta partaidetza azken hamarkadan hobetu egin direla nabaritu dute, Kontseilu honek duela gutxi egindako ikerlan baten arabera.
- Euskadin ikasleen eskubideen eta betebeharren berariazko araubideak izaera hezigarri argia du, inklusibitatea helburu duelarik, eta lehentasuna ematen die hizketatutako konponbideei ezarritakoen gaineratik.

***Horren ondorioz, Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du proposatutako neurriak sartzeraotan ikastetxeen esperientzia hori kontuan izatea.***

## **Bestelako gizarte-eragileen partehartzea**

---

Lehen aipatu den Arartekoaren txostenean esaten da euskal gazte kopuru adierazgarri batek ez duela gaitzesten izaera politikoko indarkeria erabiltzea.

Kontseiluaren iritziz, hiru dira, ikastetxeaz gain, nerabeen balioen eraketari bereziki eragiten dioten erakundeak: familia, komunikabideak eta lagun taldea. Hirurak daude planaren zirriborroan integraturik gobernuaren beste sail batzuen jardueren bitartez.

Hezkuntza-konpetentzien ikuspuntutik, ikasleak ikastetxean ikasten duena gainontzeko hiru esparruetan konpetentzia berak garatzeko ikasten duenari eransten zaiola onartzen da. Beraz, eskola edo irakasleak ez dira bakarrik utzi behar balioak eta giza eskubideekiko begirunea sustatzerakoan.

Ikastetxeen kasuan —eskolak, institutuak, ikastolak eta ikastetxeak oro har— bizikidetzaren arloko jardueren helburua ikasleek, haien arteko harremanetatik eta oinarrizko giza eskubideekiko errespetutik hasita, inolako indarkeriarik ez erabiltzea da eta, baita ere, gatazkei aurre egiteko baliabideak garatzea, partaideentzako irtenbide egokia beti egoten dela onarturik.

Hartara, integratzeko borondatea eta akordioen kultura ikastetxearen munduaren ondarearen osagaiak dira.

***Euskadiko Eskola Kontseiluak azpimarratu nahi du gizarte-eragileen eta erakundeen partehartzea garrantzi handikoa dela zuzentasuna, elkartasuna, enpatia, gupida eta antzeko balio positiboak sustatzeko orduan, herritarrek balio horiek beregana ditzaten.***

## **Beste zenbait gogoeta**

---

Irizpenean zehar balioespen eta proposamen batzuk aztertu eta arrazoitu dira Kontseiluaren iritziz planaren zirriborroan birplanteatu behar diren zenbait alderdiri buruz.

Hezkuntzaren ikuspegitik, komenigarria litzateke plana bere orokortasunean eta ikastetxeetan gauzatu beharreko jarduerak aniztasunaren ikuspegitik eta asmo integratzailearekin garatzea.

Planaren erabilgarritasunean eta egokitasunean oinarriturik, Kontseiluak Giza Eskubideen Zuzendaritzari, igorle gisa, eta plana onesteko ardura dutenei eskatzen die plana hobetzea aintzat izan dezaten, hezkuntza munduaren, giza eskubideen eta bakearen alde lan egiten duten erakunde elkarteen eta alderdi politikoen atxikimendu handiagoa lortzeko, plana praktikan modu eraginkorrean emateari begira.

Euskadiko Eskola Kontseiluak garrantzitsutzat jotzen du euskal gizarteak ikastetxeak bizikidetzarako hezkuntzaren arloan egiten ari diren lana ezagutzea, eta dei egiten die alderdi politikoei eta komunikabideei gizarterako eta eskolarako hain sentikorrek diren gai horiek erantzukizunez trata ditzaten.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari berriro adierazi nahi dio Kontseiluak bere lanarekiko erantzukizuna eta bere borondatea gure hezkuntza hobetzeko eta akordioak bilatzeko, eta planaren ekintzen gauzapenerako kontuan hartua izatea eskatzen dio.

Bilbo, 2010eko apirilaren 29a